

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 4. aldaketa puntualaren espedienteari hasierako onarpena ematea

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 4. aldaketa puntualari hasierako onespena eman zitzaion, osoko bilkuraren 2021eko abuztuaren 30eko erabakiaren bidez, eta jendaurrean jarri zen hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn eta Diario de Noticias egunkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aldaketa horren ondorioz, 3. poligonoko 1290 lurzatitik 1305 lurzatira (biak barne) kalifikazio-aldaketa egingo da J.1.4 (baso-balioagatik babes bereziko eremu) eta J.2.4 (baso-interesagatik babes bereziko eremu) gisa kalifikatutako azalera, eta J.2.5 (nekazaritza- eta abeltzaintza-interesagatik zaindutako eremu) gisa kalifikatuko da Mendibil herrian.

Epe horretan, espedientea edozein interesdunek aztertu ahal izango du udal-bulegoetan, egoki iritzitako alegazioak egin daitezten.

Lurzati horietan lizentziak etenda geratzen dira, baldin eta zehaztapan berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte. Etenaldiaren iraupena bi urtekoa izango da, edo espedientea behin betiko onartu artekoa, epea laburragoa bada.

Durana, 2021eko abuztuaren 31n

Alkatea

MARIA BLANCA ANTEPARA URIBE